


PROPOSAMENAK

AUTO-STOPEAN

0-6 URTE

Auto-stopean istorio ausarta da eta, hain juxtu ere, auto baten barruan gertatzen dira humorez eta egoera barregarriz beteriko egoera guztiak, aldian-aldian sartzen diren bidaiari berezi-bereziak ere tarteko direla.

**NOR NAIZ NI? ANIMALIEN KUMEAK- AFRIKA** 0-6 URTE

Nor naiz ni? Animalien kumeak» sailak planetako espezie harrigarrienak erakusten ditu kontinentez kontinente, haurrengan faunaren ezagutza eta natura zaintzeko ardura sustatzeko asmoz txikitatik.

**PUFFY ETA BRUNILDA, MAGIA PITTIN BAT** 6-8 URTE

Ikusi al duzue inoiz katurik ez duen sorginik? Puffy kale katua ia guztiz beltza da eta berarekin egoteko norbaiten bila dabil. Brunilda ile gorri eta ugariko neskato bihurri samarra da, eta mila gelako etxe ikusgarri batean bizi da.


**OKERREKO ALDEAN**

12-16 URTE

Fatimak eta Mariak, batak Italian eta besteak Pakistanen, Iqbalek hasitako borrokarekin jarraitzen dute, sufrimenduari eta injustiziarri aurre eginez. Baina oraingo honetan, D´Adamok begien aurrean jartzen digu sufrimendu eta injustizia horiek mundu osoan aurkitzen direla, baita gure herrialde aurreratu eta aberatsetan ere.

**EL LUNES NOS QUERRÁN** HELDUAK GAUR EGUNGO LITERATURA

Hamazazpi urteko neska baten istorioa kontatzen zaigu liburu honetan, askatasuna aurkitu nahi du jakiteko zerk egingo duen zoriontsu. Baina abiapuntuko baldintzak konplikatua dira. Ingurune zapaltzaile batean bizi da eta ez zaio erraza izango handik irtetea prezio handiegia ordaindu behar izan gabe.

**DONEANENKO ALABA**

HELDUAK EUSKAL LITERATURA

Nobela honetako narratzailearen bizialdia eta Doneaneko alabarena 36ko gerran gertaturiko pasarte latz batek txirikordatzen ditu. Narratzaileari, unibertsitateko literatura-irakasle eszeptiko bihurtua, bizimodua aldatuko zaio Doneaneko alaba gazte poeta ezagutzen duenean; Maitasunak, tragediak, ezinak, bizi-pozak elikatzen ditu pertsonaiak.

